

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1993-94-

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

1. Piarresek zer batega zuen Ortzaizen?
2. Noiz eta nuz jautsi zen Piarres-jentakozen arizien?
3. Nola bururatu zen Piarresen nahigabean?

② GAIKO PIARRES! 3

Bizkitartean, Piarresek ez zakien gehiago zer bilhaka. Treina berriz joaitera zoan... Nola jauts sarrixago¹⁰ Ustaritzen? Zer ikusi behar ere baitzuen, ez othe zuen hobe oraino, han berean, Ortzaizen gelditzea? Piarreño bere adixkide xaharra han du Arrosan, gizon bat ona, altzeirua bezalakoa.

-Les voyageurs en voiture, s'il vous plaît!... En route! Tu, tu, tu, tu!

Hainbertzenarekin, oihu bat aditzen da hor, erranen baitzen irrintzire bat. Treineko leiho guzietarik, garako ondoetarik, denak beira, denak irriz, ezker, eskuin, oro urratuak.

Ondar ondar kenkan¹¹, treina abiatzen ere hasia zelarik jada, Piarresek jauzi egina zuen lurrera, eta garako atheari l... z bazoan orai, haga bezen luze, bere athorra zuri handia haizeak zabaltzen ziola alderdi guzietara, galtzarik gabeko zangoak zuri zuria ageri, eta zango heien puntan, zapata male batzu soinean. Bizpahiru xakur bazituen jada ondotik, sainga eta saingaka. Lehergarria zen egiazki!...

Irriz hatsantua izan baliz bezala, treina bazoan orai pufaka, emeki, emeki, handik urruntzeak dolu egiten balio bezala hari ere...

Garako athean, bazen hain xuxen Irisarriko jandarma eskual-lun bat, bi jauziz lothu baitzitzaion Piarresi; ordu berean, xakur debruetarik biga athorra petralari¹² lothuak zituen hek ere.

-Nongoa zira? Zure izena, eta zalhu oraino! Berbala¹³ egiten dautzut, prozedura bat gatz eta bipherrarekilakoa!

-Piarres naiz, jauna! Ez niri minik egin! Galtzak eskuetarik zaizkit treinean eta Piarreño Arrosakoaren ganat noa, b... galtza pare bat prestuz emanen dautalakoan...

-Zer! Piarres eta Piarreño! Nongo Piarres? Galtzak galdu treinetik? Zer dituzu ergel solas hoik?...

Eta hantxet, zer nahi ikusi zuen Piarresek bere makurra ezin sinhetsaraziz. Piarreño bere adixkidea Jainkoak harat ekarririk, gizon gaixoa ereman zuten petrolak eta atxikitzen diren ttattolara¹⁴, ahalkez ere han gorde zadin, Piarreñok bere galtza parea ekarriko zuen arte.

Eta gero, gau bethean, belhaunetaraino heldu zitzaizkon galtza batzuekin itzuli zen etxerat.

Etxean zer erran zion andreak ez dakigu, baina dakiguna: hogoi egunez mafrundi¹⁵-marhanta izigarri batekin egon zela Piarres eta egundaino geroztik ez dela herritik athera nahi izan, ez eta eztei handienetara joaiteko ere.

③ ADITZ IKASKUNTZA -

- 31 - Izan balitz 32 - Egiten balio
33 - Egiten dauzute 34 - Gorde zadin

31. IZAN. Eventuels 1^{ere} et 3^{eme} forme -

	1 ^{ere} Forme (si j'étais)	3 ^{eme} Forme (si j'avais été)
Ni	izaiten banintz	izan banintz
Hi	izaiten bahintz	" bahintz
Zu	" bazine	" bazine
Hura	" balitz	" balitz
Gu	" bazine	" bazine
Zuek	" bazinezte	" bazinezte
Heik	" balire	" balire

32. UKAN. Suppositif 1^{ere} forme -

Conjugaison à dble complément

O.S. Hari = à lui C.I.S.

Nik banio	= si je le lui avais
Zuk bazinio	= si vous le lui aviez
Harek balio	= s'il le lui avait
Guk bazinio	= si nous le lui avions
Zuek baziniote	= si vous le lui aviez
Heiek balioite	= s'ils le lui avaient

33. UKAN - Conj. à dble complément

Indicatif Présent O.S. - C.I.S

Zuri = à vous

Nik dauzute	= je vous l'ai
Harek dauzu	= il vous l'a
Guk dauzugu	= nous vous l'avons
Heiek dauzute	= ils vous l'ont

O.S. - C.I.P. Zueri = à vous
N. dauzute - Ha. dauzue - G. dauzugu - H. dauzute